**EBAZPENA**

Julián Ríos Santiago jauna, 1. Alkateordea eta Hiritarrak arloko zinegotzi delegatua, horrela agintzen baitu Alkate andreak dekretu bidez onartutako ordezkaritzak (1424 dekretua, 2019ko ekainaren 27koa; BAOn argitaratua 2019/07/11ko 132. zenbakian), honakoa erabaki du 23/2022/DL espedienteari buruz:

Aztertu ondoren hitzarmena sinatzeko informe teknikoa, eta aintzat harturik Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza nagusia eta dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorra.

**E R A B A K I  D U T**

1. Hitzarmena sinatzea Durangoko Udalaren eta ASOC ZABALARRA BITAÑO GURASO ELKARTEA elkartearen artean, honako testu honekin:

**DURANGOKO UDALAREN ETA ZABALARRA BITAÑO GURASO ELKARTEAREN ARTEAN IZENPETUTAKO HITZARMENA**

**BILDURIK**: Batetik, JULIÁN RÍOS SANTIAGO jauna, NAN 30.662.165-Z, DURANGOKO UDALEKO 1. Alkateordea, eta ekintzaren fede ematen duen Idazkari Nagusi TERESA OLEAGA LARRINAGA andreak lagundurik, NAN 30.616.524-M.

Eta, bestetik, ZABALARRA BITAÑO GURASO ELKARTEA, eta bere ordez, LEIRE REKALDE MUNIAY andrea, NAN 30.693.156-R, elkartearen presidente moduan.

**RESOLUCIÓN**

El 1er Teniente de Alcalde don Julián Ríos Santiago, concejal delegado del área de Ciudadanía en virtud de las delegaciones acordadas por la Alcaldesa mediante decreto nº 1424 de fecha 27 de junio de 2019, publicado en el «BOB» número 132 de 11 de julio de 2019, ha dispuesto con relación al expediente 23/2022/DL lo siguiente:

Visto el informe técnico justificativo de la procedencia de la firma de un Convenio, de acuerdo con lo indicado en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Durango y en la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

**HE RESUELTO**

1. Firmar un Convenio entre el Ayuntamiento de Durango y la Asociación A ASOC ZABALARRA BITAÑO GURASO ELKARTEA con el siguiente texto:

**CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO Y LA ASOCIACIÓN ZABALARRA BITAÑO GURASO ELKARTEA**

**REUNIDOS**: De una parte, Don JULIAN RÍOS SANTIAGO, con D.N.I. nº 30.662.165-Z, 1.Teniente de Alcalde del AYUNTAMIENTO DE DURANGO, asistido de la Secretaria General Doña TERESA OLEAGA LARRINAGA, con D.N.I. nº 30.616.524-M, que da fe del acto.

Y de otra el A.M.P.A DEL COLEGIO ZABALARRA, representada por LEIRE REKALDE MUNIAY, con D.N.I. nº 30.693.156-R, en su condición de presidente



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 14157676751340643477
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

de la citada asociación.

**DIHARDUTE**: JULIÁN RÍOS SANTIAGO jauna, 1. Alkateordea eta Hiritarrak arloko zinegotzi delegatua, horrela agintzen baitu Alkate andreak dekretu bidez onartutako ordezkaritzak (1424 dekretua, 2019ko ekainaren 27koa); BAOn argitaratua 2019ko uztailaren 11ko 132. zenbakian;; TERESA OLEAGA LARRINAGA andreak, Udaleko Idazkari Nagusi moduan eta LEIRE REKALDE MUNIAY andreak, ZABALARRA BITAÑO GURASO ELKARTEko presidente moduan eta berau ordezkatuz, aipatutako elkartearen zuzendaritza batzordearen akordioarekin bat etorriz.

**ACTUAN**: El 1. Teniente de Alcalde, Don JULIÁN RÍOS SANTIAGO, concejal delegado del área de Ciudadanía en virtud de las delegaciones acordadas por la Alcaldesa mediante decreto nº 1424 de fecha 27 de junio de 2019, publicado en el BOB número 132 de 11 de julio de 2019; Doña TERESA OLEAGA LARRINAGA, en su calidad de Secretaria General del Ayuntamiento y Doña LEIRE REKALDE MUNIAY, como presidente de ZABALARRA BITAÑO GURASO ELKARTEA, en nombre y representación de la misma, conforme al acuerdo de su Junta Directiva.

**AITORTU ONDOREN** batak besteari behar besteko gaitasun juridikoa hitzarmena aurrera eramateko.

**RECONOCIÉNDOSE** las capacidades jurídica y de obrar necesarias y suficientes para el presente convenio, en la calidad con que actúan

## ADIERAZTEN DUTE

I.- ZABALARRA ESKOLAk Durangoko udalerriko umeen heziketari begira egiten du bere lana.

II.- Durangoko Udala, apirilaren 2ko 7/1985 legearen 25.2 artikuluak ezartzen duena betetzeko asmoz, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena, hurrengo beharra ezartzen du: hezkuntza administrazioarekin elkarlanean aritzea ikastegi publikoak sortzen, eraikitzen eta mantentzen. Horrexegatik, ondorengo lankidetza-hitzarmena izenpetzen da, jarraian aipatzen diren baldintzak betetzen dituena.

## MANIFIESTAN

I.- Que la Escuela Pública Zabalarra orienta su actividad a la educación de la población infantil del municipio de Durango.

II.- Que el Ayuntamiento de Durango, con el objetivo de cumplir lo establecido por el art. 25.2. de la Ley 7/1.985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, establece la necesidad de “cooperar con la Administración educativa en la creación, construcción y sostenimiento de los centros docentes públicos”. En aras a la consecución de lo indicado es por lo que formalizan el presente Convenio de Colaboración, que



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 14157676751340643477
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

contiene las siguientes

**BALDINTZAK**

**DURANGOKO UDALAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA**.- Durangoko Udalak 85.000 euroko diru-laguntza emango dio ZABALARRA ESKOLAKO GURASO ELKARTEARI. Udalak emango duen diru kopuru honek xede izaera izango du, eta aipatutako elkarteak Durangoko Udalarekin hartuko dituen konpromisoei aurre egiteko erabiliko da.

**ZABALARRA BITAÑO GURASO ELKARTEAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA**.-

1.- Hitzarmen honetako diru-kopurua gastu hauek ordaintzeko erabiliko dira:

- Hornikuntza gastuak, eskolaren eguneroko funtzionamendua ahalbidetzeko.
- Hezkuntza jarduera egiten deneko lokalaren mantenu-gastuak.

*Hornikuntza gastuen* atalean, honako hauek sartzen dira:

- Argindarra
- Gasa
- Ura

*Mantenu gastuen* atalean, honako hauek sartzen dira:

**CLÁUSULAS**

**COMPROMISO ASUMIDO POR EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO**.- El Ayuntamiento de Durango destinará la cantidad de 85.000 euros al A.M.P.A. del COLEGIO PÚBLICO ZABALARRA. Los fondos económicos destinados a la misma serán de carácter finalista y serán destinados por la misma al cumplimiento de los compromisos que ésta asuma frente al Ayuntamiento de Durango, que se describen en la cláusula siguiente.

**COMPROMISO ASUMIDO POR ZABALARRA BITAÑO GURASO ELKARTEA**.-

1.- Los fondos económicos establecidos en el presente Convenio estarán destinados a sufragar los siguientes gastos:

- Gastos de suministro para el funcionamiento diario de la escuela.
- Gastos de mantenimiento del local donde se desarrolla la actividad educativa.

Se entiende por *gasto de suministro* los comprendidos en la siguiente relación:

- Consumo eléctrico
- Consumo de gas
- Consumo de agua

Se entienden por *gastos de mantenimiento* del local los comprendidos en la siguiente relación:



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 14157676751340643477
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

- Hezkuntza jarduera egiten deneko lokaleko elementuen mantenu gastuak (igogailuaren mantenu gastuak, berogailua, telefono lineak mantentzeko zerbitzua, higiene zerbitzuak, sute eta segurtasun zerbitzuak).

- Gastos de mantenimiento de los elementos que forman parte del local donde se desarrolla la actividad educativa (gastos de mantenimiento del ascensor, calefacción, servicio de mantenimiento de las líneas telefónicas, servicios higiénicos, servicios de incendio y seguridad).

- Azpiegituran izan daitezkeen matxuren konponketa-gastuak (iturgintza sistema, gunea argiztatzeko sistemak, ateak, sarrailak eta giltzak), edo egoera txarrean dauden elementuak aldatzea (leihoak, gelen hormetako pintura, gortinak).

- Gastos de reparación de posibles averías de la infraestructura (sistema de fontanería, sistemas de iluminación del espacio, sistema de puertas, cerraduras y llaves) o cambio de elementos de la infraestructura que se encuentren en mal estado (ventanas, pintura de las paredes de las aulas, cortinas).

2. Hitzarmenean aurreikusten den diru-kopurua, batez ere, lehen aipatutako mantenu-gastuak eta konponketa txikiak egiteko erabiliko da, halaxe ezartzen baitu, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 25.2.n) artikuluak.

2.- Prioritariamente, la cantidad contemplada en el Convenio irá destinada a hacer frente a los citados gastos de mantenimiento y pequeñas reparaciones ordinarias del inmueble establecidas anteriormente, en virtud del artículo 25.2.n) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de régimen Local.

Beharrizan hauei aurre egin zaienean baino ezingo da diru-soberakina erabili Ikastetxearen beste hezkuntza helburu batzuetarako, hala nola, guneak egokitzeko gastuetarako eta higiezinen eta azpiegiturako beharrizanetarako. Ez dira onartuko eskola-material edo antzeko materialei buruzko gastuak.

Exclusivamente cuando estas necesidades hayan sido cubiertas, podrá destinarse el sobrante a otros fines educativos del centro, tales como gastos para acondicionamiento de los espacios, gastos para mobiliario y necesidades de infraestructura. No se aceptarán gastos relativos a suministro de materiales escolares u otros suministros similares.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 14157676751340643477
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

Ikastetxearen egitekoa eta erantzukizuna izango da gastua behar den moduan egitea lehen aipatutako bi baldintzak bete daitezen.

Jasotako diru-kopurua justifikatzea, dagozkion ziurtagiriak aurkeztuz, eta 2023ko otsailaren 28a baino lehen.

**DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA.-** Durangoko Udalak honela ordainduko dio ZABALARRA BITAÑO GURASO ELKARTEAri. %70a hitzarmena indarrean sartu eta hurrengo astean ordainduko da. % 15a ekainaren 30ean ordainduko da, eta gainerako % 15a, irailaren 30ean. Ordainketa diru partida honen kargura egingo da: 41.3232.48103. Gastuaren justifikazioa eta hitzarmen honetan hartutako konpromisoak bete direnei buruzko dokumentazio egiaztagarria, 2023ko otsailaren 28a baino lehen aurkeztu behar du onuradunak.

**IRAUPENA.-** Hitzarmena bertan behera geldituko da 2022ko abenduaren 31n.

**HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA.-** ZABALARRA BITAÑO GURASO ELKARTEAk hartu dituen konpromisoak betetzen ez badira, lankidetza-hitzarmena bertan behera geldituko da, eta jasotako diru-laguntza itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitute diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 41etik 43ra arteko artikuluek.

Será obligación y responsabilidad del centro distribuir el gasto de forma que se cumplan las dos condiciones anteriormente descritas.

Justificar la subvención recibida, mediante la presentación de documentos acreditativos correspondientes, y con anterioridad al 28 de febrero de 2023.

**FORMA DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN.-** El pago de la subvención por el Ayuntamiento de Durango a ZABALARRA BITAÑO GURASO ELKARTEA se realizará de la forma siguiente: 70% dentro de la semana siguiente a la entrada en vigor del Convenio, un 15% el 30 de junio y el 15% restante el 30 de septiembre. El pago se realizará con cargo a la siguiente partida: 41.3232.48103 La justificación de gasto, así como la documentación acreditativa de la materialización de los compromisos adquiridos en este convenio deberá ser presentada ante el Ayuntamiento de Durango por el beneficiario antes del 28 de febrero de 2023.

**DURACIÓN.-** El presente Convenio quedará extinguido el 31 de diciembre de 2022.

**EXTINCIÓN.-** El incumplimiento de los compromisos adquiridos por ZABALARRA BITAÑO GURASO ELKARTEA producirá, además de la extinción inmediata del Convenio de Colaboración, la obligación de reintegrar el importe de la subvención, total o parcialmente, de acuerdo con lo establecido en los artículos 41 a 43 de la Ley 38/2.003,



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 14157676751340643477
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

General de Subvenciones.

**BATERAGARRITASUNA**.- Diru-laguntza hau bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jaso daitekeenekin. Nolanahi ere, eta gain-finantzaketa izan ez dadin, onuradunak, gastua justifikatzerako orduan, beste erakundeetatik jaso izan dituen diru-laguntzen egiaztagiriak aurkeztu behar ditu.

**COMPATIBILIDAD**.- La presente subvención es compatible con otras procedentes de cualquier organismo público o privado. No obstante, y en aras de que no haya sobrefinanciación, el beneficiario, en el momento de proceder a la justificación del gasto, deberá presentar documentación acreditativa de las subvenciones percibidas a través de otros organismos.

**ARAUDI OSAGARRIA**.- Deialdi hau Durangoko Udalak 2021eko abenduaren 20ko osoko bilkuran onartutako 2022-2024ko diru-laguntzen plan estrategikoan jasota dago.
Hitzarmen honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.

**NORMATIVA COMPLEMENTARIA.**- La presente convocatoria está recogida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2022-2024 aprobado en pleno por el Ayuntamiento de Durango el 20 de diciembre de 2021.
En lo no dispuesto en este Convenio se estará a lo indicado en los siguientes textos legales: Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango; Ley 38/2003 General de Subvenciones; RD 887/2006 y normativa de régimen local concordante.

2. Gastua onartzea ADO fasean eta hitzarmenean aipatzen den kopuru honegatik: **85.000** Euro. Ordainketa **41.3232.48103** diru-partidaren kargura egingo da.

2. Aprobar el gasto en fase ADO por el importe del Convenio, y que asciende a **85.000** Euros, con cargo a la partida **41.3232.48103**.

3. Ordainketa hitzarmenean aipatzen den eran egingo da.

3. Que los pagos del Convenio se realicen de acuerdo con lo establecido en el propio Convenio.

4. Hitzartutako dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrei dagokienez, dirulaguntza justifikatzeko epeei dagokienez eta justifikatu gabeko diru-kopuruak itzultzeari dagokienez, hitzarmenean ezartzen dena hartuko da kontuan eta, halaber, dirulaguntzen ordenantza arautzaileak zehazten duena.

4. Que en materia de obligaciones del beneficiario de la subvención conveniada, de plazos para justificar la subvención y en materia de reintegros de cantidades no justificadas se estará se estará a lo indicado en el propio Convenio y, supletoriamente, en lo indicado en la mencionada Ordenanza Reguladora de subvenciones.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 14157676751340643477
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

Alkateorde delegatuak agindu eta izenpetzen du, eta nik, Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek, egiaztatu egiten dut.

Lo manda y firma el Teniente de Alcalde delegado, de todo lo cual yo, Secretaria General de la Corporación, doy fe.

Julián Ríos Santiago
1. alkateordea - 1º Teniente Alcalde

Maria Teresa Oleaga Larrinaga
Idazkaria - Secretaria



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 14157676751340643477
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**